



---

## FORU DEKRETUA

Nekazaritza Saila  
Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua  
Esp. zk:

### **Errioxako Jatorri Deitura Kalifikatuaren Kontseilu Arautzaileak ezarritako baldintza berriekin etiketak eta/edo sustapen ekintzak garatzen dituzten bodegei zuzendutako Oinarri Arautzaileak eta 2018rako laguntza horien deialdia onestea.**

Errioxako Jatorri Deitura Kalifikatuaren Kontseilu Arautzaileak ardoen desberdintze berria onetsi zuen, eta ondorioz, aukera oso interesgarria sortu da etiketetan Arabako Errioxan ekoizten diren ardoetan zehaztapen berriak jasotzeko.

Ardogintza merkatuan hainbat eta hainbat erreferentzia daude, milaka ardo mota ezberdin, eta hala, etiketen diseinua ezinbesteko faktorea da marka propio desberdina sortzeko, kontsumitzaileari informazioa emateko eta kontsumitzaileen arreta deitzeko, bai nazio mailan baita nazioartean ere, baina bereziki garrantzitsua da azken helburu horretarako, gure eskualdean sektore esportatzailea oso garrantzitsua baita.

Ardogintza sektorea bere segmentu barnean publizitatean gutxien inbertitzen duen sektorea da, eta beraz, askotan, kontsumitzaileen azken erabakiak zuzenean dendan edo supermerkatuan hartzen dira, eta leku horietan, etiketen ezaugarri bisualak eta erakargarriak ezinbesteko faktoreak izan daitezke, banatutako diseinua eta enbalajea erabiltzen baldin badira erosleek erabakian eragin zuzenak izan ditzaketelako, baita banatzaileetan eta sommelier batean ere. Azterketen arabera, kontsumitzaileek eta banatzaileek botilen interpretazioa egiten dute, eta horren arabera bodegaren nortasunari buruzko interpretazioa egiten dute, baita ardoaren izaerari buruzkoa ere.

Horregatik da garrantzitsua aurreko etiketetan irudia, marka, ekoizpen eremua, gunea edo udalerrri edo mahasti berezia agertzea, banakako ardoak sustatzeaz gain Arabako Errioxa eskualdeari eta bertako udalerriei lotutako irudia sortuko delako.

Hala ere, etiketatua garrantzitsua izatea ez da nahikoa, eta ondorioz, Arabako Errioxako gure ardoak promozionatzeko ekintzak egitea sustatu beharra dago beste laguntza batzuk estaltzen ez dituzten eremuetan, besteak beste barneko merkatu nazionalean.

Beharrian hori betetzeko helburuarekin foru dekretu bat onetsi behar da, non finkatuko diren helburu hori betetzeko ezarritako diren neurrien oinarri arautzaileak, Arabako Foru Aldundiaren eskumena izanik horien kudeaketa.



Kontuan hartu behar da laguntza lerro hori “Arabako ardoak sustatzea” helburu estrategikoaren barne dagoela (Foru Sektore Publikoak 2017-2019 aldirako duen Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren barnean, Diputatuen Kontseiluak abenduaren 29an onetsi zuena 921/2016 Erabakiaren bitartez eta Gobernu Kontseiluaren abenduaren 29ko 821/2017 Erabaki bidez aldatu zena).

Arabako Foru Aldundiaren 2018ko gastuen aurrekontuan bada partida bat, 75.000,00 eurokoa, laguntza lerro horretarako; hortaz, horren aurtengo deialdia onartu behar da.

Gauzatu dira Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuan ezarritako izapide guztiak, zeintzuen bidez onartzen baita xedapen orokorrak egiteko prozedura.

Horregatik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu eta onetsi ondoren, hau

## XEDATU DUT

Lehenengoa.- Onestea Arabako Errioxako bodegek ardoen etiketak berritzeko laguntzen Oinarri Arautzaileak eta ardoak sustatzeko ekintzetarako direnak, Foru Dekretu honen eranskinaren arabera.

Bigarrena.- Laguntza lerro horren 2018ko deialdia onartzea, ondoko xehetasunen arabera:

- Epea: Eskariak aurkezteko epea hamabost egun baliodunekoa izango da, Dekretu hau ALHAON argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.
- Kreditu gordekina: 75.000 €, 40.1.04.44.00.423.90.01.6 partidaren kargura, “Arabako Errioxako Etiketa Berriei buruzko Bodegen Hitzarmena”, Arabako Foru Aldundiak 2018rako duen gastu aurrekontutik.
- Kreditu hori zenbateko gehigarriekin handitu ahalko da urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutako mugen barruan, hasieran erreserbatutako kredituaren % 100eraino, baita aurrekontu partidan edozein zioengatik gerta daitekeen kredituaren gehikuntzagarik ere.

Hirugarrena.- Deialdi honetan, laguntza eskariarekin batera, Errioxako Jatorri Deitura Kalifikatutako Kontseilu Arautzaileak egindako fotokopia konpultsatua aurkeztuko da, 2017-2018 kanpainako uztarekin, eta bertan jasoko dira eremuko ardoari, udalerriri edo mahasti singularrari buruzko zehaztapenak.

Laugarrena.- Era berean, deialdi honetan laguntza ordaintzeko onetsi egingo dira gastuaren faktura edo ziurtagiriak, 2017ko urriaren 30aren ondorengoak direnak.

Bosgarrena.- Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea honako Foru Dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko eta, zehazki, honako oinarri arautzaile hauen kontra nahiz urteko deialdien ebazpenaren kontra jartzen diren berraztertze errekurtsu guztiak ebazteko.



Seigarrena.- Foru Dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz,

**Ramiro González Vicente**

Diputatu nagusia  
Diputado General

**Eduardo Aguinaco López de Suso**

Nekazaritza foru diputatua  
Diputado Foral de Agricultura

**M<sup>a</sup> Asunción Quintana Uriarte**

Nekazaritza zuzendaria  
Directora de Agricultura



## ERANSKINA

### **1.- artikulua.- Xedea.**

- 1.1 Foru Dekretu honen helburua Arabako Lurralde Historikoan Arabako Errioxako bodegek ardoen etiketak berritzeko eta ardoak sustatzeko ekintzak gauzatzeko bideratutako laguntzen emakidarako oinarri arautzaileak ezartzea da.
- 1.2 Laguntza araubide horren helburua Arabako Errioxako bodegek etiketak berritzea sustatzea eta bultzatzea da, baita horien sustapenari laguntzea ere honako lerro estrategikoen barnean:
  - a) Errioxako Jatorri Deitura Kalifikatuko Kontseilu Arautzaileak onetsitako zehaztapen berriak jasotzen dituzten etiketak diseinatzea sustatzea, bereziki eremuko ardoak, udalerrriak eta Arabako Lurralde Historikoko mahasti singularrak.
  - b) Arabako Errioxako bodegek barneko merkatu nazionalera bideratutako ardoen zehaztapen berriak sustatzeko ekintzak egitea erraztea.

### **2. artikulua.- Onuradunen betekizunak.**

Laguntza horiek jaso ahal izango dituzte Arabako egoitza fiskala duten eta ardoak sortzen dituzten bodegetako titularrak diren pertsona fisikoek eta juridikoek, Arabako Jatorri Deitura Kalifikatuko Kontseilu Arautzailearen Bodega Hazle eta Botilaratzeetako Erregistroaren barne daudenek, eta instalatutako edukiera 50.000 litro baino gehiagokoa eta 500.000 litro baino gutxiagokoa dutenek. Horrez gain, honako baldintzak bete beharko dituzte:

#### 2.1. Orokorrean:

- a) Laguntza jaso aurretik zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
- b) Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak izapidetutako zehapen edo itzulketa prozedura batean ez egotea.
- c) Ez ezarri izana administrazio zehapenik ez zehapen penalik sexua dela eta diskriminazioa eragin izanagatik, eta ez ezarri izana debeku hori Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legearen ondorioz (4/2005 Legea, otsailaren 18koa).
- d) Zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan edukitzea.
- e) Eskaera egitea, Dekretu honetan jasotakoaren arabera.

#### 2.2. Pertsona fisikoek, orokorrean ezarritako betekizunez gain, honakoak ere bete beharko dituzte:

- a) 18 urte beteta izatea eta 65 urte bete gabe izatea, laguntza eskaerak aurkezteko epea amaitzen den unean.



2.3. Pertsona juridikoek edo ustiapen asoziatiboek, orokorrean ezarritako betekizunez gain, honakoak ere bete beharko dituzte:

- a) Sozietate zibilak, titulartasun partekatua eta ondasun erkidegoak izanez gero, kide guztiek 2.1.a) artikuluan ezarritako betekizuna bete beharko dute.
- b) Zerga egoitzaren ondorioetarako, betekizun hori bete dela ulertuko da zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan dagoenean eta gutxienez bazkideen ehuneko 50ek Arabako Lurralde Historikoan zerga egoitza izateaz gain Araban kokatuta dagoen sozietate horretako kapital sozialaren ehuneko 50eko partaidetza badute gutxienez.
- c) 2.2 a) artikuluan jasotako adinaren baldintza bete egin dela ulertuko da gutxienez bazkideen % 50ek (eta gainera sozietatearen kapitalean gutxienez % 50eko parte hartzea dutenak) betekizun hori betetzen baldin badu.
- d) Beste pertsona juridiko batzuen partaidetza duten pertsona juridikoei dagokienez, sozietatearen osaera adierazi behar dute, kide diren pertsona fisiko guztiak identifikatuta; horrez gain, horietako bakoitzak ustiategi onuradunaren kapitalean zein ehuneko daukan adierazi behar dute.
- e) Nortasun juridikorik gabeko sozietateek ezin dute honelako laguntzarik jaso; salbuespena: jaraunspen erkidegoek jaso dezakete, baldin eta sei urtean gutxienez indibisioa mantentzeko ituna egin bada. Sozietate zibilak eta ondasun erkidegoak direnean, eskritura publiko bihurtutako agirien bidez osatuta egongo dira.
- f) Foru Dekretu honen ondorioetarako, urriaren 4ko 35/2011 Legean xedatutakoarekin bat etorritik titulartasun konpartitua duten bodegek sozietate zibilek duten tratamendua izango dute, baina ez dute bete behar eskritura publiko bidez eratuta egoteko betekizuna.

### **3. artikulua.- Diruz lagun daitezkeen gastuak eta diruz lagundu ezin direnak**

3.1 Diru-laguntzen bitartez helburu hauek betetzeko gastuak finantzatu dira:

1.-Errioxako Jatorri Deitura Kalifikatuko Kontseilu Arautzaileak baimendutako ardoen zehaztapan berriak jasotzen dituzten etiketen diseinuak, eremu ardoenak, udalerrienak eta Arabako Lurralde Historikoko mahasti singularrenak.

Diseinua profesionalek egin beharko dute eta bodegak izan ditzakeen gainerako etiketen oso ezberdinak izan beharko dira. Hala ere, bodegaren identifikazio zeinuren bat mantendu ahal izango da.

2.- Zehaztapan berriak barneko merkatu nazionalean sustatzeko ekintzak. Horien ezaugarriak hurrengo artikuluan daude jasota.

3.2. Ez dute diru-laguntzarik jasoko hauek:

- Bidaietako gastuak, janariak, dietak, ordezkapen gastuak, kilometrajeak, telefono gastuak, etab.
- Aseguru polizak.



- Etiketak inprimatzea.
- Webguneak edo sare sozialak sortzeko eta/edo mantentzeko gastuak.
- Kontsumigarriak.

#### **4. artikulua- Sustapen ekintzen ezaugarriak.**

4.1. Sustapen ekintza eta programak argi eta garbi definituta egongo dira, eta zehaztu egingo dira bideratutako barneko merkatuaren eremua, jasotzen diren ardo motak, gauzatu nahi diren ekintzak eta jarduerak eta bakoitzarentzako aurreikusitako kostuak eta diru-sarrerak. Hala, zehaztasun nahikoarekin adierazi beharko dira adostasuna ebaluatu ahal izateko beharrezko baldintza guztiak aplikatu beharreko araubidearekin eta kalitatearen eta prezioaren arteko loturarekin. Era berean, izango diren bitarteko propioak eta kanpokoak zehaztu beharko dira, aurreikusitako ekintzak garatzeko hain zuzen ere.

4.2. Mezuen oinarria produktuaren berezko nolakotasuna izango da, eta berariaz aipatuko da produktuaren jatorria Errioxako Jatorri Deitura Kalifikatuaren Kontseilu Arautzaileak aintzatetsitako zehaztapen berrietako bat dela; hori guztia informazio eta sustapen ekintza edo programen barnean.

4.3. Aurreko ataletan ezarritakoa albo batera utzi gabe, marken erreferentziak mezuaren zati izan ahalko dira.

4.4. Honako ekintzek jasoko dute diru-laguntza:

- Ekintza publikoak, komertzialak eta sustapenerako direnak.
- Askotariko publizitate kanpainak (Telebista, irratia, prentsa, ekimenak, etab.).
- Salmenta puntuetan egindako sustapenak.
- Produktuen aurkezpenak, dastatzeak.
- Arabako Lurralde Historikotik kanpo, barneko merkatuan egindako azoka eta erakusketetan parte hartzea.
- Etiketa berriei buruzko informazio kanpainak.
- Enpresa topaketak, profesionalak, iritzi liderrak eta kontsumitzaileak.
- Mintegiak, seminarioak, etab.
- Etiketak diseinatzea, atzeko etiketak, kapsulak eta irudiak, zehaztapen berriak jasotzen dituztenak.

#### **5. artikulua.- Laguntzak ordaintzeko modua eta zenbatekoa.**

5.1. Diru-laguntza itzuli beharrik gabekoa izango da, eta zenbatekoa zehazteko honako portzentajeak aplikatuko dira:

- a- 10.000 euro baino gehiagoko eta gehienez ere 15.000 eurora arteko gastuentzat, diru-laguntza % 50koa izango da.
- b- 7.500 euro baino gehiagoko eta gehienez ere 10.000 eurora arteko gastuentzat, diru-laguntza % 60koa izango da.
- c- 1.000 euro baino gehiagoko eta gehienez ere 7.500 eurora arteko gastuentzat, diru-laguntza



% 70ekoa izango da.

5.2. Inolaz ere onuradun bati bideratutako diru-laguntzak ezin izango du laguntza honen deialdi bakoitzerako laguntza ebazteko gordetako kredituaren % 10eko kopurua gainditu.

## **6. artikulua- Balorazio irizpideak eta laguntzen zehaztapena**

6.1.- Diru-laguntzak norgehiagoka araubidearen bidez emango dira.

6.2. Epearen barne aurkeztutako eskariak puntuazioaren arabera sailkatuko dira, honako irizpideak aplikatu ondoren:

- Urteko 50.000 litro baino gehiagorako eta 100.000 litro baino gutxiagorako instalakuntzak dituzten bodegak: 3 puntu.
- Urteko 100.000 litro baino gehiagorako eta 250.000 litro baino gutxiagorako instalakuntzak dituzten bodegak: 2 puntu.
- Urteko 250.000 litro baino gehiagorako eta 500.000 litro baino gutxiagorako instalakuntzak dituzten bodegak: Puntu 1.

6.3. Etiketak diseinatzeko gastuek honako puntuazio gehigarria jasoko dute:

- Mahasti singularretatik eratorritako ardoak jasotzeko etiketen diseinua: 5 puntu.
- Udalerritik eratorritako ardoak jasotzeko etiketen diseinua: 4 puntu.
- Arabako Errioxa eremutik eratorritako ardoak jasotzeko etiketen diseinua: 3 puntu.

6.4. Aurreko 5. artikuluan adierazitako eskatzaile bakoitzari aplikatu beharreko diru-laguntzak kalkulatu ondoren eta bakoitzaren puntuazioa zehaztu ondoren, 8 puntu dituztenek izango dute lehentasuna, ondoren 7 puntu dituztenek, eta horrela hurrenez hurren, puntu 1 dutenak azken jorratuko direlarik.

6.5. Zortzi puntu dituzten eskari guztientzako kreditu gordekina nahikoa ez baldin bada, proportzionalki hainbanatuko da, eskari bakoitzari hasiera batean aplikatu beharreko diru-laguntzaren balioaren arabera.

6.6. Puntuazio zehatza duten eskariak jorratu ondoren kreditua geratzen baldin bada, puntuazioko hurrengo taldeko eskariak jorratuko dira, eta talde horretako eskari guztiak jorratu ezin baldin badira, geratzen den saldoa hainbanatuko da.

6.7. Puntuazioko bigarren taldea jorratu ondoren saldoa geratzen baldin bada hurrengo taldea jorratuko da, aurreko 4., 5., eta 6. puntuetan ezarritakoarekin bat eginez.

## **7. artikulua.- Eskaerak aurkezteko epea, modua eta lekua.**

7.1. Urtero onetsiko da laguntza deialdia. Deialdi horrek hauek jasoko ditu:



- Aurkezteko epea.
- Deialdia ebazteko erreserbatzen den kreditua.

7.2. Eskariak Arabako Mahasgintza eta Enologia Zerbitzuan aurkeztuko dira, Guardian, Lapuebla de Labarca errepidean, z/g, Administrazio Publikoen Administrazio Erkideari buruzko urriaren 1ko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan ezarritakoa albo batera utzi gabe.

7.3. Laguntza eskatzean, organo kudeatzaileak baimena izango du eskatzaileak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela ziurtatzeko beharrezko ziurtagiriak eta informazioa jasotzeko.

7.4. Eskabidea aurkeztuz gero, eskatzaileak berariaz onartuko ditu laguntzaren oinarri arautzaileetan ezarritako betebeharrak eta konpromisoak.

7.5. Urte bakoitzeko eskabide bakarra aurkez daiteke.

## **8. artikulua.- Aurkeztu beharreko agiriak**

Diru-laguntzen eskariarekin batera honakoak aurkeztu beharko dira:

8.1. Inprimaki normalizatua, behar bezala beteta eta izenpetuta.

8.2. Eskatzailearen adierazpena, non hauek jasoko diren:

- Laguntza hura emateko baldintzak ezagutzen dituela.
- Diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen administrazio zehapenik edo zehapen penalik ez daukala eta horrelako legezko debekurik, ez daukala, sexu bereizkeriagatik ezarritako debekuak barne, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, azken xedapenetatik seigarrenean ezarritakoaren arabera.

8.3. Errioxako Jatorri Deitura Kalifikatuaren Kontseilu Arautzaileak egindako adierazpenaren fotokopia konpultsatua, diru-laguntzaren deialdiaren aurreko kanpainako uztarekin, eta eremuko, udalerriko edo mahasti singularreko ardoaren zehaztapen berriak jasotzen dituen. Adierazpen horrek frogatuko du ekoizpen bolumenak ez duela 500.000 litroko gehiegizkoa gainditzen.

8.4. Justifikazio kontu erraztua, honako informazio hau jasoko duena:

- Diru-laguntzaren gastua eta/edo ekimenaren inguruabarrak egin direla adierazten duen memoria eta hala badagokio egindako etiketaren ale bat.

Memoria horretan jaso beharko dira egindako sustapen ekintzak eta programak, zuzendutako barneko merkatuko eremua, ardo motak eta gauzatutako ekintzak eta jarduerak zehaztuz.

- Jarduerak eragindako gastuak eta inbertsioak sailkatuta ageri diren zerrenda, datu hauekin: Hartzekodunaren eta agiriaren identifikazioa, zenbatekoa, agiria noiz eman den eta, hala





badagokio, ordainketa eguna.

- Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru sarrera edo diru-laguntza batzuen xehetasuna, zenbatekoa eta nork emana den zehaztuz.
- Hala badagokio, onuradunak gehiegizko finantzazioa jaso baldin badu diru-laguntzaren jardueran, gehiegizko zenbatekoa eta interesak itzuli dituenaren ordainketa gutuna.
- Onuradunak gastu osagarriko ziurtagiriak bidali beharko ditu, Nekazaritza Sailak eskatzen dizkionak hain zuzen ere.

8.5. Egindako gastuen justifikazioa, jatorrizko fakturak edo fotokopia konpultsatuak aurkeztuz, onuradunak ordaindu dituela ziurtatuz, emakidan aplikatutako diru-laguntzaren ehuneko aplikatu ondoren emandako diru-laguntza jasotzeko nahikoa zenbatekorekin.

Faktura banku transferentziaren bidez ordaindu delako frogagiria edo merkataritzako trafikoan balio frogagarria duen agiri baliokidea.

Nolanahi ere, 2.500,00 euroko edo gehiagoko gastuak banku transferentziaren edo beste tituluren baten bidez egiaztatu beharko dira, urriaren 29ko 7/2012 Legeak, iruzurraren kontrako prebentzio ekintzei eta iruzurraren kontra borrokatzeko ekintzei buruzkoak, 7. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

8.6. Foru Aldundiak beretzat gordetzen du betiere beharrezko deritzon dokumentazio osagarria Dekretu honetan ezarritako laguntzak eskatzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoei eskatzeko eskubidea, eskaerak behar bezala baliotetsi ahal izateko.

8.7. Eskabideetan akatsik dagoela edo daturik falta dela antzematen bada, organo izapidetzaileak, hala dagokionean, interesdunei eskatuko die eskabidean galdatutako betekizunen gaineko akatsak zuzentzeko edo eskatutako dokumentuak bidaltzeko, 10 egun balioduneko epean, jakinarazpena jasotzen den egunaren hurrengotik zenbatzen hasita, larunbatak kontuan hartu gabe. Jakinarazpen horretan berariaz adieraziko da eskatutakoa bete ezean eskabidea ezetsiko dela, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 68.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

8.8. Espedientea izapidetzen den bitartean, organo kudeatzaileak behar dituen argibide eta agiri gehigarriak eskatu ahalko dizkio eskatzaileari, ebazpen proposamena egiteko beharrezko diren datuak zehaztu eta egiaztatzeko. Interesdunak ez badu ezer egiten izapide hau betetzeko, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 73. artikuluan xedatutakoa beteko da.

## **9 artikulua.- Izapidetzea.**

9.1. Eskaerak aurkezteko epea amaituta, espedienteak Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuak izapidetuko ditu.

9.2. Espedientea izapidetzen den bitartean, organo kudeatzaileak behar dituen argibide eta agiri gehigarriak eskatu ahalko dizkio eskatzaileari, ebazpen proposamena egiteko beharrezko diren datuak zehaztu eta egiaztatzeko. Interesdunak ez badu ezer egiten izapide hori betetzeko, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 73. artikuluan



xedatutakoari men egingo zaio.

9.3. Diru-laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituzten eskari guztiak jorratzeko aurrekontu nahikorik ez baldin badago, 6. artikuluan zehaztutakoa gauzatuko da.

9.4. Laguntza horiek balioetsiko dituen kide anitzeko organoa ondoren aipatzen diren pertsonak edo, beharrezkoa balitz, beraiek ordeztu dituztenek osatuko dute:

- Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuaren burua.
- Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuaren teknikaria.
- Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua.
- Administrazio Kudeaketa Atalaren burua.

9.5. Bakarrik epearen barne aurkeztutako eskariak kontuan hartuko dira, eta gainera, oinarri hauetan zehaztutako forman laguntza eskatzeko beharrezko dokumentazioa izan beharko dute.

9.6. Foru Dekretu honetan ezartzen ez diren kasuei eta zirkunstantziei dagokienez, balorazioko kide anitzeko organoak bidezkotzat jotzen dituen irizpideak aplikatu ahalko ditu modu arrazoituan.

## **10. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena.**

10.1. Kide anitzeko balorazio organoak hala proposatuta, foru organo eskudunak ebatziko ditu espedienteak, indarra duen araudian oinarrituta. Ebazpen horrek administrazio bidea amaituko du eta bidezkoa izango da haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, errekurtsu horretarako arauari jarraituz. Aukerako berraztertze errekurtsua ere jarri ahal izango da.

10.2. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritako ondorioetarako, prozeduraren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa izango da, eskariak aurkezteko epea bukatzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori igarotakoan berariazko ebazpena eman eta jakinarazi ez baldin bada, administrazioaren isiltasuna ezestekoa izango dela ulertuko da, Arabako Lurralde Historikoko Diru-laguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 23.5. artikuluari jarraituz.

10.3. Laguntzak emateko eta ordaintzeko ebazpenek espediente bakoitzean ezarriko dute zein izango den laguntzaren zenbatekoa. Ebazpena negatiboa baldin bada, arrazoia eta ehunekoa adieraziko dira.

10.4. Laguntzaren ebazpena banan-banan jakinaraziko da eta bertan aurreko idatz zatian adierazitako informazioa jasoko da.

## **11. artikulua.- Laguntzen ordainketa.**

Laguntzen ordainketa laguntzak ematean egingo da, eta ezinbesteko baldintza izango da diru-laguntzaren xedeko ekintzak bukatu izana eta 8. artikuluan adierazitako dokumentazioa aurkeztuta izatea.



## **12. artikulua.- Onuradunen betebeharrak.**

Oro har, laguntzen onuradunek honako betebeharrak izango dituzte:

12.2. Emandako diru-laguntza onartu eta eman zaion erabilera zehatzerako baliatzea, laguntzak esleitzeko ebazpenean ezarritako baldintzen arabera. Ildo horretan, laguntza jasotzen duten egunetik aurrera, 10 egun baliaduneko epean onuradunek ez badiote berariaz eta idatziz uko egiten laguntzari, onartu egin dutela ulertuko da.

12.2. Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari eta Kontuen Euskal Epaitegiari ematea beren eginkizunak gauzatzean eskatzen duten informazioa Foru Dekretu honen babesean jasotako laguntzari buruz.

12.3. Laguntza zuzen eman dela egiaztatzekeo behar diren kontrol guztiak gainditzea.

12.4. Jasotako laguntzak zertan erabili diren egiaztatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztatze eta kontrol jarduketan gai izan daitezkeen bitartean.

## **13. artikulua.- Laguntzak aldatzea, berrikustea eta itzultzea**

13.1. Diru-laguntza emateko baldintzak aldatzen baldin badira eta diru-laguntzaren xedea betetzen baldin bada, emakida ebazpena aldatu ahal izango da, eta hala, guztizko ezeztatzea eta murrizte partzial proportzionala egin ahal izango dira, diru-laguntzaren gastua kontuan hartuz hasierako diru-laguntzak zuen proportzioan.

13.2. Onuradunek betetzen ez badituzte Foru Dekretu honetan hartutako konpromisoak eta laguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzak eta xedea, edo laguntza eskuratzen badute horretarako bete behar diren baldintzak bete gabe, galdu egingo dute emandako laguntza jasotzeko eskubidea, eta dagoeneko diru kopururen bat jaso badute, Arabako Foru Ogasunari itzuli beharko diote nahitaez, aplikatu beharreko legezko interesak gehituta. Hori guztia ez da oztopo izango bidezko ekintzak aplikatzeko, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko diru-laguntzenak, xedatutakoaren arabera.

13.3. Zenbateko horiek zuzenbide publikoko diru sarreratzat joko dira, legez dagozkion ondorioetarako.

13.4. Nekazaritza Saileko foru diputatuaren foru agindu bidez erabakiko da diru-laguntza osorik edo horren zati bat itzuli behar den, ikuskapen edo kontrol txostenari eta itzultzeko proposamenari atxikiz, interesatuari entzun ondoren.

13.5. Diru-laguntza osoa edo zati bat itzultzeko prozeduraz gainera, zehapen prozedura abiarazi ahal izango da, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren diru-laguntzenak, aurreikusitako arau hausteengatik.

## **14. artikulua.- Nahita egindako ez betetzeak.**

Nahita egindako ez betetzeak hartuko dira onuradunak laguntza bat eskuratzeko beharrezko baldintzak artifizialki sortu dituela agerian jartzen dutenak, betiere neurriaren helburuen kontrako



abantaila lortze aldera. Kasu horietan, onuraduna zegokion laguntza jasotzetik baztertuko da; jaso dituen zenbatekoak itzuli beharko ditu, kasuan kasuko interesekin batera.

**15. artikulua.- Araubide juridikoa.**

Foru Dekretu honetan jasotako laguntzen onuradunek Arabako Lurralde Historikoko Diru-laguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan ezarritakoa bete beharko dute.

**16. artikulua.- Laguntzen bateragarritasuna.**

Foru Dekretu honetan aurreikusten diren laguntzak bateragarriak izango dira onuradunek beste erakunde publiko nahiz pribatu batzuetatik jasotzen dituztenekin, baina laguntza horien guztien baturak ezin dezake inola ere jardueraren kostua gainditu.

**17. artikulua.- Laguntzen finantzazioa.**

Foru Dekretu honetan ezarritako laguntzetara bideratzen diren baliabide ekonomikoak Arabako Foru Aldundiaren aurrekontu kredituetatik aterako dira.